

Irurtzunen, bi mila eta zortziko uztailaren hamaseian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi dute Arrate Zabalo Ochotorenak eta Jose Peinado Cuestak.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko ekainaren 3an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2008ko ekainaren 3az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

ZINEGOTZIAK KARGU HARTZEA

Hauteskunde Batzorde Zentralak betetako egiaztagiria irakurri da. Horren arabera, Irurtzungo Udalerako Union del Pueblo Navarro alderdiko zinegotzia Maria Nieves Uterga Juango izendatzen da, Miguel Angel Navarrete Cuevasen ordezkari.

Jarraian, legeak ezarritako izapideak beteta, Uterga andreak bere kargua hartu, eta bat egin du bilkurarekin.

UDAL PLANEKO HIRIGINTZA ARAUTEGI OROKORREKO 31. ARTIKULUA ALDATZEA BEHIN BETIKO ONARTZEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren ondorengo proposamena irakurri da:

“Udal Planeko Hirigintza Arautegi Orokorreko 31. artikulua aldatzea behin betiko onartzeko Alkatetzaren proposamena.

Afera hau Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko uztailaren 11rako deitua zuen bilkuran beharrezkoa den gutxieneko partaide kopuru faltagatik ebazterik izan ez duenez, Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztu da.

Onartzea proposatzen den akordioa hauxe da: Udal Planeko Hirigintza Arautegi Orokorreko 31. artikulua aldatzea behin betiko onartzea.”

Proposamen hori eguneko aztergai-zerrendan sartzea bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, honako hau erabaki da aho batez, hau da, Udalbatzako kide-kopuru legalaren gehiengo osoz:

1.- Udal Planeko Hirigintza Arautegi Orokorreko 31. artikulua aldatzea behin betiko onartzea; hau da, aipatu artikuluko 3. puntua honako paragrafo honetan gehitzea:

“- Halaber, 1 eta 2 piezako Unitate Habitazionalen gehienezko portzentajeek lehen zeuzkaten mugak ez dira aplikagarriak izanen alokairu erregimenean (edozein aldaeratan dela ere) dauden etxebizitza babestuen sustapen publikorako nahiz pribaturako.”

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza- eta jarduera-araudiko (AJA) 126.2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK (BOE) ALOKATZEKO BALDINTZAK ONARTZEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren ondorengo proposamena irakurri da:

“Alokairu-erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko baremoa onartzeko Alkatetzaren proposamena.

Afera hau Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko uztailaren 11rako deitua zuen bilkuran beharrezkoa den gutxieneko partaide kopuru faltagatik ebazterik izan ez duenez, Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztu da.

Onartzea proposatzen den akordioa hauxe da: alokairu-erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko baremoa onartzea.”

Proposamen hori eguneko aztergai-zerrendan sartzea bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, Murugarren jaunak proposatutako aldaketa bat onartu da aho batez. Proposamena honetan datza: 1 e) atalean jasotakoaren arabera, etxebizitzaren jabeak ez direnei 6na puntu ematea (proiektuan aurreikusitako 2 puntuen ordez), eta 1 a), 1 b), 1 c), 1 d) eta 1 f) ataletako balizkoei 5, 4, 3, 2, eta puntu 1 ematea, hurrenez hurren. Proposamen horren arabera, beraz, onartu da:

1.- Alokairu-erregimen berezia duten babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-baremoa onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza- eta jarduera-araudiko 126.2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Bozkatu aitzineko eztabaidan, Iriarte jaunak esan du baldintza horien asmoa Irurtzongo gazteei lehentasuna ematea dela, eta, aldi berean, etxebizitzarekin arazo bereziak dituzten herritarrei.

Bestalde, Murugarren jaunak, onartutako aldaketa formulatzeaz gain, esan du onartutako azken proiektu honek nabarmen hobetzen duela hasiera batean eztabaidatu zena.

De la Calle jaunaren iritziz ere proiektua nabarmen hobetu da, eta izaera zabalagoa du, bere garaian Batzordeak proposatutakoaren ildotik.

EZKONTZAK, HILETAGATIKO AGUR ZIBILAK ETA OMENALDIAK ARAUTUKO DITUEN ORDENANTZA HASIERA BATEAN ONARTZEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Ezkontzak, hiletगतिको agur zibilak eta omenaldiak (jaiotzak) baimentzea eta horiek egitea arautuko dituen ordenantza hasiera batean onartzeko alkatetzaren proposamena.

Afera hau Gizarte Ongizate eta Emakumearen Arloa Batzordeak 2008ko uztailaren 9rako deitua zuen bilkuran beharrezkoa den gutxieneko partaide kopuru faltagatik ebazterik izan ez duenez, Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztu da.

Onartzea proposatzen den akordioa hauxe da: ezkontzak, hiletगतिको agur zibilak eta omenaldiak (jaiotzak) baimentzea eta horiek egitea arautuko dituen ordenantza hasiera batean onartzea.”

Proposamen hori eguneko aztergai-zerrendan sartzea bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, Arruabarrena andreak proposatutako aldaketa bat onartu da aho batez. Proposamena honetan datza: aipatu ekitaldi horiek egiteagatik tasak ezartzeari eta ordaintzeari buruzko aipamen guztiak kentzea. Proposamen horren arabera, beraz, onartu da:

1.- Ezkontzak, hiletगतिको agur zibilak eta omenaldiak (jaiotzak) baimentzea eta horiek egitea arautuko dituen ordenantza hasiera batean onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza- eta jarduera-araudiko 126.2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Bozkatu aitzineko eztabaidan, eta, proiektuan aurreikusitakoaren arabera, tasak kentzeari dagokionez, Viñas jaunak adierazi du tasak ezartzeak zalantzak sortu zituela, eta hasiera batean horiek proposatzearen helburua eskatzaileek ekitaldi horiek larunbat arratsaldeetan eta igandeetan ez antolatzea izan zela.

ALKATETZAREN PROPOSAMENA LAN KOMUNITARIOAK ARAUTUKO DITUEN ORDENANTZA HASIERA BATEAN ONARTZEKO

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Gizartearentzat lan eginez zigor ekonomikoak betetzeari buruzko Ordenantza hasiera batean onartzeko alkatetzaren proposamena.

Afera hau Gizarte Ongizate eta Emakumearen Arloa Batzordeak 2008ko uztailaren 9rako deitua zuen bilkuran beharrezkoa den gutxieneko partaide kopuru faltagatik ebazterik izan ez duenez, Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztu da.

Onartzea proposatzen den akordioa hau da: gizartearentzat lan eginez zigor ekonomikoak betetzeari buruzko Ordenantza hasiera batean onartzea."

Proposamen hori eguneko aztergai-zerrendan sartzea bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, honako hau onartu da aho batez:

1.- Gizartearentzat lan eginez zigor ekonomikoak betetzeari buruzko Ordenantza hasiera batean onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza- eta jarduera-araudiko 126.2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Erabakia hartuta, De la Calle jaunak ordenantza zorrotz betetzea eskatu du.

GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUEI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Garapenerako lankidetzaproiektuari diru-laguntza emateko alkatetzaren proposamena.

Afera hau Gizarte Ongizate eta Emakumearen Arloa Batzordeak 2008ko uztailaren 9rako deitua zuen bilkuran beharrezkoa den gutxieneko partaide kopuru faltagatik ebazterik izan ez duenez, Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztu da.

Proposatzen den akordioa jarraian aipatzen diren proiektuak gauzatzeko ondorengo diru-laguntzak ematea da:

- 1.417,30 euro, “Partido de San Fernandon -Argentina-, CRECER eskola-sostengurako programa babestea” izeneko proiekturako, Itxipuruk aurkeztua.
- 2.030,45 euro, “Tejutepeque -El Salvador- landa-eremuan ekoizpen-garapena” izeneko proiekturako, El Salvador Elkartasuna taldeak aurkeztua.

- 2.030,45 euro, “Santiago del Esteroko -Argentina- MOCASE VC Nekazaritza Unibertsitatean nekazaritza ekologikoko etxaldea eraikitzea” izeneko proiekturako, SETEM NAVARRAK aurkeztua.
- 2.030,45 euro, “Tindouf-en -Aljeria- errefuxiatu sahararren kanpamenduetan laguntza humanitarioaren banaketarako garraio-baseari eusteko sostengua” izeneko proiekturako, Mugarik Gabeko Teknikarien eta Langileen Elkarteak aurkeztua.
- 2.030,45 euro, “Oruroko Chuquiña-n eta La Joya-n -Bolivia- ehungintzako emakume artisauen ekoizpen-gaitasunak eta gaitasun mikroenpresarialak indartzea” izeneko proiekturako, Izan taldeak aurkeztua.
- 2.030,45 euro, “Independencia barrutian -Peru- familia-indarkeriaren prebentziorako ikuspegi integrala” izeneko proiekturako, Nafarroako Medicus Mundi elkarteak aurkeztua.
- 2.030,45 euro, “Siberia de Chiltiupan kantoiko (la Libertad) -El Salvador- La Raizuda baserrian ura edangarri bihurtzeko eta ingurumen-saneamendurako sostengua” izeneko proiekturako, ONAYk aurkeztua.”

Proposamen hori eguneko aztergai-zerrendan sartzea bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, eta Murugarren jaunen, eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin pndorengoa erabaki da, De la Calle jaunak eta Uterga andreak abstentziora jota:

1.- Alkatetzaren proposamenean jasotako diru-laguntzak onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza- eta jarduera-araudiko 126.2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

De la Calle jaunak, bere botoaren arrazoia azalduz, esan du abstentziora jo duela bere taldeak aurrekontuen eztabaidan izandako jarrerarekiko koherentziagatik.

ALKATETZAREN PROPOSAMENA EUROPAR BATASUNAK ETORKINEKIKO DUEN POLITIKAREN KONTRA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Alkatetzaren proposamena 'Itzulerako Zuzentaraua'ren aurka”.

Afera hau Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko uztailaren 11rako deitua zuen bilkuran beharrezkoa den gutxieneko partaide kopuru faltagatik ebazterik izan ez duenez, Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztu da."

Onartzea proposatzen den akordioa hauxe da: Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal taldeak 'Itzulerako Zuzentaraua' ren aurka egindako proposamena onartzea. Edukia, berriz, honako hau da:

“Ekainaren 17an 'itzulerako zuzentaraua' onartu zuen Europako Parlamentuak. Zuzentarauak Europan egoera administratibo irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako herritarrak kanporatzea ahalbidetzen du, defentsarako eskubiderik utzi gabe, eta errugabetasun-printzipioa urratuz.

Zuzentarauak etorkina egintza administratibo bakar batez eta berehalakotasunez kanporatzeko bidea ematen du; hau da, funtzionario baten erabaki soilaz, eta, beraz, defentsa eraginkorrerako eskubidea ukatuta.

Zuzentarauak, halaber, adin txikikoak kanporatzea ahalbidetzen du, berau bere familiarekin itzuliko dela, edo bere herrialdean adin txikikoak babesteaz arduratzen diren agintarien esku utziko dituztela bermatu gabe. Areago, adin txikikoarena ez den beste herrialde batera eramatea ahalbidetzen du, arrazoia edozein dela ere, adin txikikoa bere lurraldean hartzeko prest badago.

Zuzentarauak xedatzen du lanerako baimen administratiboa ez duten etorkinak internamendu-zentroetan (espetxeen antzekoak, eta batzuetan egoera kaskarragoetan) sartzea; etorkinak kanporatze-prozesuan laguntzen ez badu, 18 hilabetez ere egon daiteke halakoetan.

Giza Eskubideen halako eta bestelako urraketarako, Europako herrialdeek 2 urteko epea hartu behar dute beren legetan jasotzeko, baldin eta oraindik egin ez badute.

Nafarroa Bai-Irurtzun Bai udal-taldearen iritziz, etorkinen aferan dugun erronkaren aitzinean, aterabidea ez da mugak ixtea, etorkinen joan-etorriak erregulatzea eta eraginkortasunez kudeatzea, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen arteko elkarbizitza, eta, betiere, Giza Eskubideen Nazioarteko Sistema errespetatzea baizik.

Hori guztia dela-eta, mozio honen bitartez ondoren jasotako puntuak onartzea eskatzen diogu Irurtzungo Osoko Bilkurari:

1. Herritarren jatorria, arraza nahiz sinesmena edozein dela ere, Giza Eskubideen urraketa agerikoa dakarten Itzulerako Zuzentzarauko atal guztiekiko gure desadostasuna adieraztea.

2. Aipatu atalak indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ez sartzea eskatzea.

3. Irurtzongo Udalaren sostengua eta elkartasuna adieraztea gure udalerrian, eta hedaduraz Nafarroan bizi diren beste herrialdeetako herritarrekiko.”

Proposamen hori eguneko aztergai-zerrendan sartzea bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin ondorengoa onartu da; De la Calle jaunak Uterga andreak abstentziora jo dute:

1.- Nafarroa Bai udal-taldeak “Itzulerako Zuzentaraua”ren aurka egindako proposamenarekin bat egitea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza- eta jarduera-araudiko 126.2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

ALKATETZAREN PROPOSAMENA EUROPAR BATASUNAREN LAN POLITIKAREN AURKA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

"Alkatetzaren proposamena 65 orduko lan-astea ezartzea ahalbidetzen duen Europar Batasuneko lan-ministroek hartutako erabakiaren aurka."

Afera hau Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko uztailaren 11rako deitua zuen bilkuran beharrezkoa den gutxieneko partaide kopuru faltagatik ebazterik izan ez duenez, Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztu da.

Onartzea proposatzen den akordioa hau da: Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal taldeak egindako proposamenena onartzea. Edukia, berriz, honako hau da:

“Irurtzun Bai udal-taldeak 65 orduko lan-astea ezartzea ahalbidetzen duen Europar Batasuneko lan-ministroek hartutako erabakia irmo salatu nahi du.

EBk hartutako erabakia atzerapauso nabarmena da, langile-klasean urtetako borrokarekin lortutakoa hankaz gora botatzen baitu.

Irurtzun Bai-ren iritziz, EBk adostutako neurria neoliberalismorik bortitzenaren isla da.

Erabakia hitzartu dutenek gizarteari 'saldu' nahi diote neurria lan-eskubideen mesedetan dela. Hori, ordea, egia ezkutatzeko zentzugabeko ahalegina baino ez da: hau da, 65 orduko lan-asteak ezartzeko aukerak

zuzen-zuzen egiten die aurre laneko eskubideei, lan ezegonkortasuna areagotu egingen baitu.

Irurtzun Bai taldeak kezka hartu du EBren erabakia, Euskal Herriko eta Europako gizarteetan eta lan-merkatuetan azken urteotan izan diren aldaketetan sakontzeko helburuarekin hartuak izan baitaitezke.

Euskal Herriko eta Europako gizarteak gero eta gehiago bideratu dituzte zerbitzu-sektorerara, eta sektore horretan, hain zuzen ere, izan daiteke errazago lanaldi luzeagoak ezartzea, 'herritarrei 24 orduko zerbitzua' ematearen aitzakiarekin."

Horregatik guztiarengatik, Udal honi aipatu erabakia irmo gaitzesteko erabakia hartzea eskatzen diogu."

Proposamen hori eguneko aztergai-zerrendan sartzea bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin ondorengoa onartu da; De la Calle jaunak Uterga andreak abstentziora jo dute:

1.- Nafarroa Bai udal-taldeak 65 orduko lan astea ezartzea ahalbidetzen duen Europar Batasuneko lan-ministroek hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako proposamenarekin bat egitea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza- eta jarduera-araudiko 126.2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Erabakia hartuta, Murugarren jaunak esan du gaitzetsitako halako erabakiak eskuineko politikak direla aipatuko lukeela; beren mozkin izugarriei eutsi nahi dieten kapital handien (argitara emandako datuen arabera) mesedekoak.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Kultura.

Udalburuak jakinarazi du aurtengo jaietako suziria UPN udal-taldeari dagokiola botatzea.

Hori adierazita, De la Calle jaunak esan du, erraldioen konpartsak 25. urteurrena bete duela-eta, suziria beraiekin batera bota nahiko luketela.

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumena

Iriarte jaunak adierazi du Osoko Bilkuraren hurrengo bileran (abuztuaren 19rako aurreikusia) alokairu erregimenean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako udalaren lursailaren salmenta, eta Construcciones Amikol, SLrekiko hitzarmena aztertuko direla.

GALDE-ESKEAK

De la Calle jaunak, konpainiako animaliei buruzko udal-arautegiaren berri emateko kanpaina dela-eta, galdetu du nola ezarriko diren aurreikusitako zigorrak.

Iriarte jaunak erantzun dio ez dagoela zigorrak ezartzeko asmorik, salbu eta jarrera larriak eta behin eta berriz gertatzen badira; halakoetan, zigorra Alkatetzak ezarriko du.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiatapena egiten dut.